

Lurra

Landa-lurraldeari buruzko aldizkaria • 13. zenbakia
236. **ttipi-ttaparekin** banatua

1966. urtean ateri
zuen Sabino Korta
beratarrak honako
izokin eder hau.
Urte hartan, denetara
324 ale arrantzatu
ziren Bidasoan.



Antonio
Teletxea
"Sonddu"
beratarrak,
13,3 kiloko
ale hau
ateri zuen
1947an.

BIDASOAKO
IZOKINA

ARI DA MANTSO-MANTSO BERE ONERA ETORTZEN

2-3. KONTRABANDISTAK:

Azkeneko LURRAn Berako bi kontrabandistaren ibilerak
kontatzen genizkizuen. Oraingoan, berriz, senpertar batengana
jo dugu.

4-5. IZOKINAK:

Bidasoako izokinak horren ospetsuak izan arren, denbora batean
galtzeko zorian egondu ziren. Gaur egun, ordea, birpopulazioei

esker, pittaka-pittaka ari da burua altxatzen arrain berezi hau.

8. SORGINKERIA: «Sorginkeria; gaitz guziendako
estalkia... errepresio guziendako bidea», laugarren kapitulua.
Juainas PAUL.

12. ELKARRIZKETA: 70. hamarkadan azukre sasoi-
nera joaten zen senpertar ainitz, Joset OLHAGARAI, horien artean.

IZOKINAK

Mantso-mantso bada ere, Bidasoako izokin kopurua goiti doaie

Bainan ez bakarrik Bidasoan, bertze erreka batzuetan ere ari baita berpizten arrain berezi hau. Gipuzkoako Urumea ibaian duela 60 urte inguru ez zela izokinik ikusten, eta iazko neguan 47 ale zenbatu zituzten. Oria ibaian, berriz, bi izokin ikusi ziren iaz, mende oso batez desagertuta egon ondoren. Birpopulazioak, beraz, ari dira espe-ro bezalako emaitzak ematen.

Diotenez, Elizondotik Berarat zoaien trenbidea egin zuten denboretan, bertan lanean ari ziren langileek protesta egin omen zuten egunero-egunero bazkari berbera ematen zietelako: izokina, alajaina.

Anekdotak honek argi erakusten du garai batean Bidasoan izokin kopuru ikaragarria zegoela. Urtero 200 ale arrantzatzen ziren banaz bertze, eta jatekoak eskasten zirenean, etxe aunitzetako beharrak asetzen ziren izokinari esker. Zenbait faktoreren eraginez, ordea, pausu haunditan desagertzen joan da arrain hau gure erreketatik. Gaur den egunean, arras preziatua bihurtu da arrain hau, eta harrapatzen den lehen piezaren kilo bakoitzak 25.000 pezetako balioa hartu du (1.000 libera) gutti goiti behera. Ale hori ateratzeko lehia ikaragarria dago arrantzaleen artean, nahiz eta azken urteetan jate txeez ez duten lehen bezain errax erosten. Beranduxko izan bada ere —denboraldia abiatu eta 50. egunean— Juan Migel Errandonea berata-



rrak atera du denboraldi honetako lehenbizikoa, 4,5 kiloko izokina. Denetara, 34 izokin arrantzatu dira orain arte Bidasoan.

Hala ere, izokinaren gainbeheraz berandu baino lehen ohartu garelako iduri du, azken urteetako birpopulazioak beren fruituak ematen ari dira eta. Horrela, 70 eta 80. hamarkadetako izandako gainbeheratik pittaka-pittaka burua altxatzen ari da arrain bitxi hau. Otsaila aldera, 15 zentimetro inguruko 9.000 bat izokin tiki libratzen dira Bidasoan, eta urtero 120.000 arrautze era-

«Diotenez, Elizondotik Berarat zoaien trenbidea egin zuten denboretan, bertan lanean ari ziren langileek protesta egin omen zuten egunero-egunero bazkari berbera ematen zietelako: izokina alajaina».

maten dira Mugaireko haztegi-
ra, han urte batez hazi eta ge-
ro errekan libre uzteko.

Arrantza errekan eta itsasoan

Arrantza da, hain xuxen, izokinien ia desagertzea ekarri duen faktoreetako bat. Mende honen erdialdera, izan ere, marea goitzen zen punturaino libre baitzen izokinak sarek atzematea. Halaber, nasak eta lehergailuak ere erabili izan dira arrantzarako. Gaur egun, ordea, izokin arrantza erabat arautua eta mugatua dago erreketan. Bidasoan, adibidez, zaintzaile bereziak daude, harrapatzen diren piezak kontrolatu eta zenbatzeko. Ale bakoitzari txapa bat jartzen diote, non ateriaz izan den seinaltatuz. Gainera, neurtu eta pisatu egiten dituzte arrantzaleak eramanez aitzinetik. Bertze kontu bat da, ordea, izo-

BIDASOAN KAINABERAZ ATERITAKO IZOKINAK

1965	158
1966	324
1967	150
1968	110
1969	135
1970	74
1971	47
1972	155
1973	108
1974	31
1975	102
1976	91
1977	90
1978	41
1979	37
1980	30
1981	17
1982	0
1983	35
1984	16
1985	8
1986	40
1987	49
1988	42
1989	16
1990	27
1991	22
1992	59
1993	59
1994	59
1995	49
1996	47
1997	38

GRACIANA DE BARRENECHEAren kasua

Hara hemen Jose Felix TOBAR ARBULUk, Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra 48. aldizkarian Los demonios vascos son de carne y hueso izenburuarekin argitaratu zuen artikuluan plazaratu zuena:

«en manos de la Santa Inquisición por setiembre y pario en diciembre y media (to) un niño y dixo tuviessen grande cuidado de el cual fue cexado en manos/ de las ermanas del combento por orden deste Sancto Tribunal: yniçiósele el pro/cesso el dia 2 de octubre para lo cual se precisso la compareçencia de una persona conoçedora de la lengua de la encaussada siendo así q(ue) fue llamado al este efeto el ermano dela orden de Sancto Domingo ffray León de Aranivar. Ila rea negosse a confessar durante los cinco ynterrogatorios primeros y como no/ hera combeniente ussar de los metodos combencionales ffue presa su madre Catalina-/Dechave y torturada en su presençia mientras el dicho ffray León le decia en bas/quençe q(ue) le conbenia confessar ante este Sancto Tribunal su terrible pecado del q(ue) avia sido acusada por barios testigos pues era su mission la de salbarla no del/condemnarla y q(ue) hera voluntad de Dios sacalla dela ynorançia q(ue) avia praticado durante tantos/tiempos y en la q(ue) avian pereçido tantos otros: finalmente acedio á confessar y/ preguntossele q(ue) quien era el padre del niño q(ue) llevaba en su vientre y respondiolo/ en su lengua deste modo fraydevaçuec eramanindute leccoesqutuvaterat etahan/eda neracy oncatetic q(ue) biene a deci(r) en n(uestr)a lenguacastellana según el trad(ç)tor q(ue) ffue ynduçida por el d(emonio) a yazer con el por tiempo de ms de tres noches/ seguidas en março: pidiossele Christi nomine ynvocato confessasse si avia mantenido/ antes rrelación con el malbado y si avia sido de modo voluntario y por sometimiento/ a lo q(ue) la rea rrespondió ynd(a)rracaldu nituen vaynan begiac eççaystan lau/ssotu, enuen minçeçenahal artuninduten eta comentuco caperarat eraman: hamberçel fraydevaçuec zaoden eta villosuninduten q(ue) siniffica q(ue) siendo de edad de doze años/ se le appareçio el demonio en ffiigura de angel de luz y se le appareçia como/Christo cruzificado y la mouia á d(e)voçion y q(ue) siguió viendolo desde entonçes: / confesso tambien q(ue) avia tenido deleytes camales otras bezes con el demonio q(ue) ella tenia devocion y q(ue) la tendrian por santa: requiriossele assi mismo contasse/como ynvocara la pressencia de su dueño ynfemal a lo qual la dicha M(ari)a de Bar/nechea contesto vatec urresco yrur quoroa zeraaççam bu-ruam etappeç quisa yaonçinç/ zagon, berçehec oynac yquç-tençioç(ç)atelaric q(ue) en n(uestr)a lengua quiere decir q(ue) yo soy demonio y de aquí en adelante solo quiero ser del demonio y solo dél y odiare/ á Dios como mi mayor enemigo: la rea pusosse entonçes de rodillas y dixo/...».

«Un anticristo vasco?» Fabulas de Carioconcia, Luis de Baygorri y Urmeta (Universidad Autónoma de Madrid, Departamento de Antropología).

• Ez dago deus gehiago erran beharrik, zergaitiak ez badira. Horiek hurrengo baterako uzten ditut.

febrero de 1671

del comisario del Inquis.

N

aguerlarre

Enago 6 veni la dev. s. de 8 deste haze la diligencia q(ue) se me manda en lo delas dos mugeres de santasleuan y luego me ocupa en la informacion dela genealogia del doctor q(ue) la remite con esta r. l. s. y van prefijos los susodchos dos mugeres con q(ue) sentim. todos otros lugares dela comarca en ver q(ue) lleuan estas dos dexando en cada lugar tantas q(ue) hazen mucho mayor dano y cada noche lleuan las ermas alas aguerlarre q(ue) tan grande el enojo y alteracion q(ue) causa en la comunidad esto de lleuar los niños q(ue) los proprios lugares se han dado a bazar prisioneros sin oden, q(ue) algunos q(ue) hazen el dano dellleuan los niños y quando les ydo yo ala mano esto, algunos se han descompuerto como q(ue) diziendo me q(ue) que cofa es q(ue) ellos y su justia me paseda prenden alas brujas y brujas q(ue) les lleuan los hijos a su secta y los hazen venegar de Dios y los asotan y maltratan, constando esta bellagancia tan publicamente y continuando estos perfidos en ella y amondestos dicho el por reme q(ue) delas prisiones se vea q(ue) no obstante q(ue) estan prefijos lleuan alas niños y suporden q(ue) es bien que padecan y q(ue) tienen experiencia q(ue) estando prefijos solo lleuan alas niños q(ue) antes embruxaban y no alas q(ue) estan parnificadas se q(ue) para q(ue) no hazen mas dano del q(ue) an q(ue)cho es bien q(ue) estan prefijos. el trabajo es grande y el alboroto y confusion del vulgo tambien y no alcanzo yo como se puede acertar y certificar a r. l. s. q(ue) yo no soy saho de cofa por na ay. los llantos sentim. y q(ue)exas dela gente popular aunque estando en cofa me dan tanta pesadumbre por q(ue) no

Hualdek, Berako umeak
apezetxean bilduko ditu gauero.
Aranibar eta bere alde dauden
erretoreek antzekoa egingen dute.
Haurrek erran behar dute zein
diren berriko sorginak eta noiz, nola
eta zer egiteko eramaten dituzten
baien ospakizunetara.

IZOKINAK

kinek itsasoan jasan behar izaten dutena. Izan ere, Iparraldeko itsaso hotzetako arrantzaleek, bakailuaren pare arrantzatzen baitute izokina, batere neuririk gabe. Horrexegatik, erre-kara itzultzen diren izokin gehienek ez dute lehen bezainbertzeko bidaia luzerik egiten. Dirudienez, Groenlandiaraino joaten omen ziren lehenagoko izokinak, eta urte batzuren ondoren kozkortuta itzultzen ziren. 10-15 kiloko izokinak ateratzen omen zituzten garai ba-

tean Bidasoan. Azken urteetan egindako segimenduen arabera, berriz, urte bateko ibilaldia egiten dute gehienez ere, eta denbora horretan ez du iduri sobera urrun joaten direnik.

Zentrale hidroelektrikoak eta kutsadura

Bi horiek dira, dudarik gabe, mende honen erdialdetik honat izokinaren murriztea eragin duten bi faktoren nagusiak. Zentrale hidroelektrikoak XIX.

eta XX. mendearen mugan hedatu ziren indar haundiz, eta ohartu orduko erreka guziak kanalez eta presaz josiak ziren. Oztopo gaindiezinak dira horiek izokinentzako, salto egiteko duten abilezia izugarria kontutan hartuta ere. Gainera, ur emaria ttititu egiten dute zentraleek, arrainen kalterako, noski. Gaur den egunean ez dituzte toki guzietan errespetatzen guttieneko ur-emariak. Iñigo Mendiola biologoaren erranetan, «1.500 litro segundukoa da urtaro guzietan baimendutako ur-emari ttikiena, eta Leitzaranen adibidez, ez dute muga hori errespetatzen».


Bertzalde, erreken kutsadura izan da izokinen urritzea ekarri duen bertze faktore garrantzitsu bat. Eskualdeko fabriketatik isuri diren hondakinek kalte haundia egin diete. Adibide mingarri gisa, aipa dezakegu 1972an Lesakako fa-

brikak isuritako azidoaren ondorioz, ehundaka izokin agertu zirela ur azalean hilik.



Jose Juan Apeztegia (Bera). 12 kiloko izokina.

«Zentrale hidroelektrikoak XIX. eta XX. mendearen mugan hedatu ziren, eta ohartu orduko erreka guziak kanalez eta presaz josi zituzten. Oztopo gaindiezinak dira horiek izokinentzako, salto egiteko duten abilezia izugarria kontutan hartuta ere».



Berez, itsasoko arraina da izokina, baina sortu, erreketako iturburuetan sortzen da. Urte bat betetzen duen arte ur gezetan bizi da izokin ttikia, eta orduan abiatzen du bere bizitzako lehen bidai luzea. Ipar itsasora joaten da, eta pentsa daitekeenez, eraldaketa fisiologiko nabarmenak ematen dira bere metabolismoan, ur gazietan laketu orduko. Errate baterako, itsasoan zilar koloreko janz-

Errekatik itsasora, itsasotik errekarara

kera hartzen du izokinak. Errekarara itzultzean, ordea, jauntzia aldatu eta kolore beltz eta gorrixkez iluntzen zaio soina.

Zenbait izokini egindako segimenduek erakusten dutenez, urte baten buruan itzultzen dira gehienak errekarara, baina badira itsasoan aisa denbora gehiago ematen dutenak ere. Indartsuenak Groenlandia eta Terranovaraino joaten dira, eta han arrantzaleen sareetan erortzen dira normalki, antxoak balira bezala arrantzatzen dituzte-eta. Ez dago sobera garbi nola aurkitzen duten beren sorlekua izandako erreka, baina usaimen zorrotzaren bidez gidatzen direla erran izan da beti. Itsasoko egonaldian gantzak eta erreserbak pilatzen dituzte, udaberri aldera errekarara itzultzerakoan ez baitute ia deus ere janen. Arrantzaleen zizareak, ordea, so-

bera tentagarriak izaki, eta bere ehiza senak bulkaturik egiten diete autsiki.

Erreketan harrapatzen dituzten oztopo guziak ahal bezala gaindituz, arrautzeak erruteko toki egokia bilatuko du izokin emeak. Eme bakoitzak 6.000-7.000 arrautz paratzen ditu aldikoz, eta astebeteren ondoren, arrak hasiko du bere lana. Honek hazia jariatu, ernaldutako eta zuloa tapatu egiten du instant batean.

Errekaraino egindako bidaia neketsua eta ugalketa prozesuarengatik erabat ahuldurik, izokin gehientsuenak errekan bertan hiltzen dira, itsasora ezin ailegatu. Bertze batzuk, hala ere, itsasoraino itzultzea, lortzen dute, eta han indarberritu egiten dira berriz. Hauek bigarren itzuli bat egingen dute heldu den urtean errekaraino. ■